

GIPUZKOAKO AULKI MUGIKORREKO LIGA eta GIPUZKOAKO 8+ TXAPELKETA

ORIO 2025
APIRILAK 26, 14:30etan



Antolatzaileak eta laguntzaileak:



AURKEZPENA

1. SARRERA

Orion arraunaren ibilbide bikainak 1890. urtera garamatza. Garai hartan herriko arrantzale taldeak kantabriar kostaldeko beste herrietako arrantzale taldeen aurka lehiatzen ziren.

2013. urtean beteranoen arraunketak izan zuen hasiera. Hasiera xumea, hasiera guztiek izan ohi duten gisan. 2021. Urtean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kirol Taldeen Erregistroan izena erregistratu zuen arraun klubak, "Beteranoen Arraunketa Bultzatzaile" izenarekin, hain zuzen.

Gaur egun klubaren izen ofiziala hau da:

Badok 13 Beteranoen Arraunketa Bultzatzailea. Laburtuta: BADOK 13 ORIO.

2. LEHIAKETA

Estropada honetan parte hartzeko kategoriak gizonezkoak eta emakumezkoak izango: infantilak, kadeteak, jubenilak eta absolutuak.

Modalitate guztiek edukiko dute parte hartzea.

Estropadak lerroz-lerro (linean), 1000 eta 1500 metroko distantzian lehiatuko dira.

Epaimahaia Gipuzkoako Epaile Eskolako Arbitro-Epaileek osatuko dute.

Estropadak 2025eko Apirilaren 26an, larunbata, izango dira Orion (Gipuzkoa).

3. ESTROPADA EREMUA


Probak lehiatuko diren estropada eremuak lau kale izango ditu.

Estropada eremua Euskadiko Arraunketa Federakuntzaren Batzorde Teknikoaren gainbegiratzearekin zehaztuko da.

Estropada eremuaren mugapena eremuan bertan topografo batek zehaztu eta plano ofiziala eman lezake, eta epaileen esku jarri beharko da.

Irteeratik helmugaraino ontzi baten ur-marra izango da jarraitu beharrekoa aipatu den distantzia egiteko, eta berdin balioko du partaide guztientzat.

Lehendabiziko kalea edota ur-marra Epaileen gunetik gertukoena izango da.



4. PARTAIDETZA

Partaidetza klub mailako taldeei dago irekia.

Gizon/Emakume, kategoria guztiak.

Kirolari kopurua, parte hartzean izen ematearen menpe egongo da.

5. LEHIAKETA SISTEMA

Lehiaketa sistema 1500 edo 1000 metroko estropadetan oinarrituko da.

Kategoria bakoitzeko ontziak, aurrez zehaztutako txandatan antolatuko dira eta estropada bakar baten ondorio izango da emaitza. Estropada amaitzean denbora onena egiten duenak irabaziko du eta ondorioz, puntuaziorik altuena lortuko du. Gizon eta emakumezkoak aparteko kategoriatan banatuta egongo dira.

KALEEN ESLEIPENA:

Estropada hasi baina lehen, kaleen zozketa egingo da eta horren arabera, talde bakoitzak estropada hasi baino lehen, bere koloreko kalean jarri beharko du ontzia estropada jokatu ahal izateko.

6. ANTOLAKUNTZA

Antolakuntza Badok 13 Beteranoen Arraunaren Bultzatzailea-ren (BADOK 13 ORIO) gain izango da, eta laguntza Orioko Udalaren eskutik izango da, Gipuzkoako Arraunketa Federakuntzaren gainbegiratzearekin.

Badok 13 Beteranoen Arraunaren Bultzatzailea-ren (BADOK 13 ORIO) arduratuko da kirol azpiegitura guztiaz eta beharrezko bitarteko guztiez, antolakuntza egoki eta osoa bermatu nahian .

Elkarte bakoitza izango da beren ontziak Oriora ekartzearen arduradun.

Antolakuntza ez da kargu egingo ontzietan edota bestelako elementuetan gerta litezkeen kalteen edota matxuren gainean.

7. PROGRAMA

- 15:00etan Ordezkarien bilera Orioko Arraunetxean izango da
- 16:30etan hasiera emango zaio lehiaketari.

8. ESTROPADAK

- Azken egunera arte ordutegia zehazteko egongo da.

9.BESTELAKO DATUAK

AURREIKUSITAKO INSTALAKUNTZAK



Ontzien parking-a:
18m x 110m = 1980m²


Gizonezkoen aldagela: 94,10m²

Emakumezkoen aldagela: 63,20m²



Epaileak Ibai ondo kalean egongo dira eta beraientzat karpa bat jarriko da. Horrez gain, aurrez, Udalari eskaera egingo zaio epaileentzat autoak nahiz furgoneta uzteko 4 toki erreserbatzea.

Epaileen karpa:
3m x 6m = 18m²



Autoak aparkatzeko tokia:
4 autorentzat tokia.

Erabiliko diren instalazioak:

- Karpa
- 2 mahai
- 4 aulki

AZTERKETA EKONOMIKO FINANTZARIOA

Estropada honetan, ez da aurreikusten inolako gastu ekonomikorik; ez eta irabazirik ere. Gasturik egon badago, Badok 13 Beteranoen Arraunaren Bultzatzailea egingo da horien arduradun.